

Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren Instrukzioa. Honen bidez, COVID-19 koronabirusak eragindako nazioarte-mailako osasun publikoko larrialdia dela-eta, honako hauek zehazten dira: batetik, administrazio-baldintzen eta -epeen aplikazioaren etetea Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak osorik edo partzialki izapidetutako prozeduretan; eta, bestetik, tributu arloko aparteko neurrien aplikazioa tributu arlokoak ez diren baliabide publikoetan.

Instrukzio hau helburu hauetarako onesten da: batetik, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian arautzen diren arau iragankorren eragina zehazteko (dekretu horren bidez, alarma-egoera deklaritzen da, COVID-19ak sorturiko krisi sanitarioa kudeatzeko). Xedapen gehigarri horren bidez, administrazio-prozeduretako administrazio-baldintzen eta -epeen etetea zehazten da, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazioko baldintzen eta epeen etetearen ondorioak ere (Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren martxoaren 16ko 1/2020 Zirkularrean jasota daude); bestetik, COVID-19aren ondoriozko tributu arloko aparteko eta premiazko neurriak tributu arlokoak ez diren baliabide publikoetan aplikatzea zehazteko (11/2020 Errege Lege Dekretuko bederatzigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuarekin bat); eta, batez ere, segurtasun juridikoaren printzipioa betetzeko.

Hala martxoaren 14ko 463/2020 Errege Lege Dekretuaren 6. artikuluan nola COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailearen amaierako bigarren azken xedapenean aurreikusten den eskumen-gaikuntza baliatuz, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak hainbat foru-agindu eman ditu gai batzuk garatzeko, hala egitera behartu baitu larrialdi sanitarioaren bilakaerak.

Hori guztia dela eta, instrukzio bat eman behar da, ahalik eta lasterren argitzeko COVID-19 koronabirusak eragindako larrialdi sanitarioa dela-eta hartu diren neurrien eragina, eta sortu diren beste gai batzuei erantzuna emateko.

Hori dela bide, honako hau EBAZTEN DUT:

Lehenengo. Administrazio-epeak etetea.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak izapidetzen dituzten administrazio-prozeduretako baldintzen eta epeen etete orokorra eta automatikoa egingo dela adierazten da, tributu arloan ezar daitezkeen espezialitateak gorabehera.

Adibidez, baina ez era baztertzailan, epeak eta baldintzak eteten dira arlo hauetan:

- a) Dirulaguntzak emateko prozedurak.
- b) Dirulaguntzak eta beste sarrera batzuk itzultzeko prozedurak
- c) Kalteak ordaintzeko sarreraren prozedurak.
- d) Zehapen-prozedurak.

Etete horrek sorrarazitako egoera amaitzen denean berrabiaraziko dira prozedurak; hau da, larrialdi sanitarioko egoeraren indarraldia amaitzen denean, larrialdi sanitario hori amaitzen denean geratzen den aldian -hasierako epea edo luzatutakoa-, baina kasu batean ere ez dira zerotik hasiko. Beraz, berriro helduko zaie prozedurei, ez dira berriro hasiko.

Bigarren: Etete orokorraren salbuespenak.

Lehenengo apartatuan adierazitako etete orokor eta automatiko horren salbuespenak izango dira kasu hauek:

- a) Organo eskudunak, ebazpen arrazoitu baten bitartez, prozeduran interesdun direnen eskubide eta interesen kalte larriak saihesteko behar-beharrezko diren antolamendu- eta instrukzio-neurriak erabaki ahal izango ditu, betiere interesduna ados badago.
- b) Interesdunak adierazi ahal izango du ados dagoela epea ez etetearekin.
- c) Organo eskudunak, arrazoituta, erabaki dezake jarraipena ematea larrialdi sanitarioko egoera justifikatzen duten egitateekin estu loturik dauden egoerei dagozkien administrazio-prozedurei, edo interes orokorra babesteko nahitaezkoak direnei.
- d) Organo eskudunak, arrazoituta, erabaki ahal izango du zerbitzuen oinarrizko funtzionamenduari lotutako administrazio-prozedurei jarraipena ematea.

Edozelan ere, ahal den neurrian administrazio-jarduera eten edo justifikaziorik gabe atzeratu ez dadin, plantillaren egoerak eta lan-baldintzek horretarako aukera ematen dutenean, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriko 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitako

mekanismoez baliatu ahal izango dira organo eskudunak, mekanismo horien bidez ofizioz sustatu dadin prozeduren tramitazioa, tramiteak bideratu daitezen eta dagozkien administrazio-egintzak eman daitezen.

Nolanahi ere, kasu hauetan jotzen da adierazitako arrazoiak betetzen direla:

- prozedura horiek beharrezkoak direnean zerbitzuen oinarriko funtzionamendurako: laguntza eta prestazioak ematea, gizarte-eremuko zerbitzuen prestazioa, GUFEn erakunde autonomoak ematen dituen zerbitzuak, eta adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitza-zerbitzuagatik prezio publikoak kobratzea.
- larrialdi sanitarioa sortzen duten egitateekin lotutako gastuen prozedurak direnean: gastu horien proiektu espezifikoak COVID-19a denean.

Hirugarren. Kontratazio publikoko prozedurak etetea.

Bizkaiko Foru Aldundiko eta foru-sektore publikoko erakundeetako kontratazio-prozeduretan baldintzak eta epeak eteteari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren martxoaren 16ko 1/2020 Zirkularrean jasotako xedapenekin bat jardungo da (Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazio-baldintzen eta -epeen eteteak dituen eraginei buruzkoa).

Laugarren. - COVID-19aren ondoriozko tributu arloko aparteko eta premiazko neurriak tributu arlokoak ez diren baliabide publikoetan aplikatzea

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Dekretuaren bederatzigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan xedatutakoarekin bat, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren -COVID-19ren eragin ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko aparteko presazko neurriei buruzkoa- 33. artikuluan tributu-zorretarako ezarritako premiazko neurriak gainerako baliabide publikoei ere aplikatuko zaizkie.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan, tributuei buruzko araudia egiteko eskumena Batzar Nagusiei dagokie. Eskumen hori dela bide, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 8. artikuluko 2. apartatuarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiak martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailea onetsi du.

Horrenbestez, ezartzen da egokitzat jotzen den kasuetan tributu-zorretarako premiazko neurriak aplikatuko direla; zehazki, COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailean aurreikusitakoak.

Zehazki, hauek aplikatuko dira tributu arlokoak ez diren sarrera publikoetan:

- Autolikidazioa edo sarreraren aitorpena aurkezteko borondatezko epea 2020ko ekainaren 1era arte luzatuko da, baldin eta epe hori data horren aurretik amaitzen bada.
- Errekurtsoak edo erreklamazio administratiboak aurkezteko epeen hasiera edo zergapekoek eskatuta hasi behar den beste edozein jarduketaren hasiera 2020ko ekainaren 1era arte luzatuko da, tributu telematikoa nahitaezkatzat ezarrita ez duten prozeduretan.
- Epemuga 2020ko martxoaren 16tik aurrera duten likidazioak sartzeko epea ekainaren 1era arte luzatuko da, egun hori barne (foru-arau orokorreko epea luzeagoa ez bada, kasu horretan luzeena aplikatuko baita). Epe hori ez zaie aplikatuko aldizkako epemugadun zorrei, eta horien epea 15 egun naturalez luzatuko da.
- 2020ko martxoaren 16a baino lehen hasi diren prozeduren etenaldiak etenaldi justifikatutzat joko dira zergapekoaren kasuan, edo, bestela, Administrazioari egotzi ezin zaion arrazoiaren ondoriozko luzamendutzat joko dira, eta, beraz, ez dira zenbatuko prozedurak ebazteko epean. Neurri hau ezarriko da prozedura eteten denetik 2020ko ekainaren 1era arte.
- Dokumentuak, aurrekariak edo informazioa aurkezteko, Administrazioak egindako errekerimendu indibidualizatuei erantzuteko epea eten egingo da 2020ko martxoaren 16tik 2020ko ekainaren 1era arte, aipatutako epea bi data horien artean amaitzen bada.
- 2020ko martxoaren 16tik 2020ko ekainaren 1era bitartean, ez da berandutza-interesik sortuko mota horretako baliabideen prozeduretan.
- Foru-dekretu arauemaile horren 5. artikuluan xedatzen den salbuespeneko gerorapena eskatu ahal izango da, tributu arlokoak ez diren zor publikoen kasuan
- Hilabete atzeratuko da onartutako gerorapenen martxoko ordainketa egiteko muga-eguna, eta, ondorioz, hilabete atzeratuko da gainerako muga-egunetako bakoitza; ez da berandutza-interesik sortuko 2020ko martxoaren 25etik apirilaren 25era arteko epeak direla-eta.
- Ordaintzeko borondatezko epean sartzen ez diren zorrak ordaintzeko epe exekutiboa Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 165. artikuluan ezarritakoarekin bat hasiko da, borondatezko epea 2020ko martxoaren 16tik 2020ko ekainaren 1era bitartean amaitzen bada. Kasu horietan, Zerga Administrazioak dagokion premiamendu-probidentzia emango du, baina ez da jakinaraziko 2020ko ekainaren 1a baino lehen.

- Era berean, 2020ko ekainaren 1era arte luzatuko da (egun hori barne) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 60.3 artikuluan aipatzen den zorra ordaintzeko aparteko epea ere, baldin eta epe hori 2020ko martxoaren 16aren eta data horren artean amaitzen bada (foru-arau orokorreko epea luzeagoa ez bada, kasu horretan luzeena aplikatuko baita).

Bestalde, larrialdi sanitarioko egoera luzatzearen ondorioz, organo eskudunek tributuen arloko aurreko epeak aldatzen badituzte, ulertuko da tributu arlokoak ez diren sarrera publikoetan aplikatu beharko direla.